

# TUTORETZA BIRTUALA
# TUTORÍA VIRTUAL

59

**DEFINIZIOA**
**Zer da?**

Tutoretza birtuala urrutiko hezkuntzako modalitate bat da; modu sinkronikoan edo asinkronikoan komunikatuta dauden irakasleen (edo tutoreen) eta ikasleen arteko elkarrekintza ahalbidetzen du, orientazio dinamikoa, akademikoa edo pertsonala, orokorra edo zehatza, taldekoa edo pertsonalizatua ahalbidetzen duten baliabide eta euskarri telematikoen bitartez, ikaskuntza estrategikoari begira.

Tutorearen rola oso garrantzitsua da, elkarrekintza iraunkorra, dialogikoa eta partaidetzazkoa ahalbidetu behar duelako (rol pedagogikoa, soziala, zuzendaritzakoa, teknikoa eta orientatzailea). Laguntza sistematiko eta antolatuaren bitartez, ikasleak sustatu, akuilatu eta orientatu egin behar ditu, ikaskuntza-egoerak erraztuz eta era guztietako zailtasunei irtenbidea ematen lagunduz. Horretarako, beharrezkoa da tutoreak eraginkortasunez jardutea ahalbidetuko dioten teknika eta baliabideak, integrazioa errazten duten estrategiak eta ikasleak ezagutzea (ikasleen testuinguruak, interesak, zalantzak, itxaropenak eta ikaskuntza-bilakaera).

Tutoreak komunikazioa piztu eta orientatzen du. Ikasleek beren denbora antolatu behar dute erantzuteko, esku hartzeko, proposatutako jarduerak betetzeko, jakintzaz jabetzeko, eta jakintza sozializatu, interpretatu eta eraldatzeko.

**DEFINICIÓN**
**¿Qué es?**

La tutoría virtual es una modalidad de educación a distancia que permite la interacción entre docentes (o tutores) y alumnos, comunicados en forma sincrónica o asincrónica, por medio de recursos y

soportes telemáticos que posibilitan una orientación dinámica, académica o personal, general o específica, grupal o personalizada, para un aprendizaje estratégico

Es importante el rol del tutor porque debe propiciar una interacción permanente, dialógica y participativa (rol pedagógico, social, de dirección, técnico y orientador). Mediante un apoyo sistemático y organizado, debe promover, estimular y orientar a los estudiantes, facilitando situaciones de aprendizaje y ayudando a resolver los distintos tipos de dificultades. Para ello es necesario que conozca las técnicas y recursos que le permitan desempeñarse con eficacia, las estrategias que favorecen la integración y también a los alumnos (sus contextos, intereses, dudas, expectativas y evolución en el aprendizaje).

El tutor anima y orienta la comunicación. Los alumnos deben organizar su tiempo para responder, intervenir, cumplir con las actividades propuestas, apropiarse del saber, socializarlo, interpretarlo y transformarlo.

**BALIABIDEAREN ERABILERA**
**Nola erabiltzen da?**

Tutoretza birtuala, lehen hezkuntzan, orientazio-, aholkularitza- eta gida-lana besterik ez da, eta irakasleak berak egin dezake ikasgelan, edo aditu batek, senitarteko batek, edo hartarako esleitutako pertsonak. Ikaslearen eta tutorearen arteko komunikazioa baliabide askoren bitartez egin daiteke, hala nola foroen, txaten, posta elektronikoaren, banaketa-zerrenden, bideokonferentzien eta e-learningeko ingurunearen bitartez [Info gehiago 17. fitxan].

Tutoretza birtuala saio bakarrean edo lan-prozesu batekin batera egin daiteke. Prozesu horretan, ikasleak parte-hartze aktiboa izan behar du eta tutoreak nahiz ikaskideek aintzat hartzen dutela sentitu, planteatutako zalantzei erantzunak azkar emanez.

**UTILIZACIÓN RECURSO**
**¿Cómo se usa?**

Una tutoría virtual en el contexto de la escolaridad primaria, responde simplemente a la tarea de orientación, asesoramiento y guía que puede realizar el mismo docente de aula, un especialista, familiar o persona contactada. La comunicación entre los alumnos y el tutor se puede realizar a través de foros, chats, correo electrónico, listas de distribución, videoconferencias, y entorno e-learning [Más info en Ficha 17].

Una tutoría virtual puede realizarse durante una sola sesión o para acompañar un proceso de trabajo. Durante el proceso el alumno debe participar activamente y sentirse contenido por el tutor y por el resto de compañeros, mediante respuestas rápidas a las dudas planteadas.

**IKASGELARAKO GOMENDIOAK**

Tutoretza birtualeko esperientziak egitea gomendatzen da; izan ere, ikasleentzat berria den eta baliabide espezifikoak baliatzen dituen prestakuntza-eremu bat garatzen du, eta autonomia, autoikaskuntza, autoprestakuntza, autoerregulazioa, autoebaluazioa, lankidetza eta elkarlanean eta lankidetzan oinarritutako lana sustatzen ditu.

Horrez gain, erlazioaren kontzeptu eta ingurune berria sortzen du: komunitate birtuala, eta horrek, lotura, elkarrekintza eta erlazio sendoen bitartez, elkarrekintza dialogikoko estrategiak hobetzen ditu.

Tutoretza birtualak hainbat aplikazio du eskola-ingurunean. Sistematikoak izan gabe (aukera ugari baitaude), honako hauek aipa daitezke:

- Ikasgelako taldearen erantzukizuna duen irakasleak tutoretza birtuala egiten du ikasleekin, eskola arrunten osagarri.
- Bi irakasle koordinatu egiten dira, eta ikasgelako taldeekin komunikazioak trukatzen dituzte. Eskola bereko irakasleak izan daitezke, edo proiektu berean parte hartzen ari diren bi eskolatakoak.

- Irakasleak askotariko kideez osatutako taldearen ardura hartzen du. Taldea hainbat eskolatako ikasleek osatzen dute, proiektu komun baten esparruan.
- Familien parte hartzea prestakuntza-proposamen birtual batean: gai bateko aditu gisa, prestakuntza motaren bat jaso lezaketen pertsona gisa, jarduera didaktikoen inplementazioan inplikatuta dauden eragile gisa, etab.
- Aniztasunarekiko arretaren kudeaketa tutoretza birtualen bitartez: gaitasun handia duten ikasleak edo tutoretza birtualen bitartez hel dakiokeen arreta espezifikoren bat behar duten ikasleak.
- Ikaskideen arteko tutoretza birtualak: ikasle batek, irakasle arduradunak gainbegiratuta, beste ikasle baten tutore birtualaren lana egiten du.

## RECOMENDACIONES PARA EL AULA

Se recomienda realizar experiencias con una tutoría virtual, porque desarrolla un espacio formativo nuevo para los alumnos y con recursos específicos, potencia la autonomía, el autoaprendizaje, la autoformación, la autorregulación, la autoevaluación, el trabajo cooperativo y colaborativo.

Además, genera un nuevo concepto y entorno de relación: la comunidad virtual, que con fuertes vínculos, interacciones y relaciones, mejora las estrategias de interacción dialógica.

Existen diferentes aplicaciones de la tutoría virtual en el entorno escolar. Sin tratar de ser sistemáticos (puesto que las posibilidades son enormes), se pueden citar:

- El docente responsable del grupo clase establece una tutoría virtual con sus alumnos como complemente a sus clases ordinarias.
- Dos docentes se coordinan e intercambian comunicaciones con sus grupos clase. Puede tratarse de docentes de una misma escuela o de dos escuelas distintas que participan en un mismo proyecto.
- El docente se responsabiliza de un grupo diverso, conformado por alumnos de distintas escuelas en el marco de un proyecto común.

- Participación de las familias en una propuesta formativa virtual: como especialistas en alguna temática, como susceptibles de recibir algún tipo de formación, como agentes implicados en la implementación de actividades didácticas…
- Gestión de la atención a la diversidad mediante tutorías virtuales: alumnos con altas capacidades o alumnos que precisan alguna atención específica que sea abordable por medio de tutorías virtuales.
- Tutorías virtuales entre pares: un alumno asume, bajo la supervisión del docente responsable, funciones de tutor virtual sobre otro alumno.

**GOMENDATUTAKO GUNEAK**
**Non aurki dezaket?**

**Artikulua: Tutorías virtuales**
http://www.ucm.es/info/especulo/numero11/tutorias.html
Fernández Pinto, Jimena (1999) Espéculo. Revista de estudios literarios. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

**Educación a distancia y calidad educativa: evaluación, investigación, acreditación. Las tutorías: ¿un espacio para el intercambio creativo?**
http://www.salvador.edu.ar/vrid/publicaciones/revista/torres.htmhttp://www.salvador.edu.ar/vrid/publicaciones/revista/torres.htm
Torres, Claudia Marcela eta Lucchesi, Norma (2000). Zientzia Politikoaren eta Nazioarteko Harremanen Fakultatea. Rosarioko Unibertsitate Nazionala-Argentina. Mercosur/Sul 2000 urruneko hezkuntzari buruzko IV. jardunaldien esparruan argitaratutako artikulua: "Educación a distancia: calidad, equidad y desarrollo", Buenos Aires, 2000.

**Atlas de la diversidad wikiliburua**
http://es.wikibooks.org/wiki/Atlas_de_la_Diversidad_Cultural
Lankidetzan oinarritutako proiektua garatzea ahalbidetu duten oinarri teorikoak eta parte-hartzaileek beren ibilbidean izandako eta partekatutako hainbat esperientzia praktiko biltzen dituen liburua.

**SITIOS RECOMENDADOS**
**¿Dónde lo encuentro**

**Artículo:Artikulua:<0} Tutorías virtuales**
http://www.ucm.es/info/especulo/numero11/tutorias.html
Fernández Pinto, Jimena (1999) Espéculo. Revista de estudios literarios. Universidad Complutense de Madrid

**Educación a distancia y calidad educativa: evaluación, investigación, acreditación. Las tutorías: ¿un espacio para el intercambio creativo?**
http://www.salvador.edu.ar/vrid/publicaciones/revista/torres.htmhttp://www.salvador.edu.ar/vrid/publicaciones/revista/torres.htm<0}
Torres, Claudia Marcela y Lucchesi, Norma (2000). Facultad de Ciencia Política y Relaciones Internacionales. Universidad Nacional de Rosario-Argentina. Artículo publicado en el marco de las IV Jornadas de Educación a distancia Mercosur/Sul 2000 "Educación a distancia: calidad, equidad y desarrollo", Buenos Aires, 2000.

**Wikilibro Atlas de la diversidad**
http://es.wikibooks.org/wiki/Atlas_de_la_Diversidad_Cultural
Libro que reúne los presupuestos teóricos que han permitido desarrollar el proyecto telemático colaborativo junto con algunas de las experiencias prácticas que han vivido y compartido los participantes a lo largo de su trayectoria.